# Hiri Debekatuaren Mapa
## El mapa de la ciudad prohibida



# Jendetze lanak

"Jendetze lanak" egiten ari gara Hernaniko leku diskriminatzaileetan. "Jendetze" hitzak dion bezala, herriko espazio publikoa herritar guztientzat erabilgarri, eroso eta elkarbizitzarako gune biziekin izatea nahi dugu. Kalea guztiona eta bixi-bixia!!!

Estamos adecuando espacios públicos de Hernani para que todas las personas tengamos acceso cómodo a ellos, creando espacios vivos para la convivencia.



1

## Latsunbe Santa Barbarako tunela

- Erabilerarik gabeko pasabide iluna eta utzia da, Santa Barbarara igotzeko bidearekin loturarik ez duena.
- Santa Barbararako oinezko bidea berreskuratzea izan da azaldutako ideia nagusia. Helburua da lekua txukun eta bizirik ikustea; horretarako, bertan argiak jarriko dira.

- Tunel degradado sin uso. Desconectado del camino natural de subida a Santa Barbara.
- Se plantea abrir el camino a Santa Barbara, acondicionar el lugar iluminándolo para que el nuevo uso llene de vida el lugar.



2

## Portuko tren azpiko pasabidea

- Oinezkoentzako espaloiak oso estuak dira eta kotxeek dute lehentasuna.
- Pertsonen ikuspegia kontuan hartuta lan egiteko premia dago: pasabide guztia kota berean jarriz kotxeek uler dezaten oinezkoek dutela lehentasuna.

- Las aceras son estrechas y el paso resulta difícil y peligroso para muchas personas y colectivos.
- Se propone que todo el tunel sea acera, un paso de convivencia con preferencia peatonal.



3

## Jose Manuel Aristimuño "Pana" Parkea. Apeaderoko eskailerak

- Apeaderora joateko gune nagusia da, eskailerek ezkutaleku ugari dituzte eta ilunabarretik aurrera oso gutxi ikusten da. Gainera, eskailera ingurua zaindugabea somatzen da.
- Parke honen nortasuna aldatu gabe, beheko auzoetatik herrigunerako bide argitsu eta irisgarriak landu beharrean gaude. Parkea irekitzea eta igogailuaren proiektua lantzen ari da Udala.

- Es el acceso principal del apeadero al centro histórico. Tras el atardecer el control visual en el parque resulta escaso.
- Dado que es uno de los conectores entre los barrios de la ribera y el centro histórico es importante generar un paso accesible que genere una buena percepción en su uso. El proyecto de apertura y conexión por el parque, que incluye el ascensor, tratará todas estas cuestiones.



4

## Atzieta kalea

- Kotxeen presentzia nagusia da, errepideak oinezkoentzako lekuaren bikoitza okupatzen du. Oztopo handia da parkea eta apeaderoko bidea herriarekin lotzeko.
- Kale garrantzitsua da orientazioa, parkearen hurbiltasuna, eta bistak kontuan izanda, egoteko eta paseatzeko leku ezin hobea delako. Ideia polita litzateke kale honetan berriro ere merkatua edo festa bat antolatzea. Kotxeen presentzia mugatuz, elkartze eta jolas lekua indartu nahi da, kalean kotxeen eta jendearen arteko oreka bultzatuz.

- Los coches ocupan la mayor parte de la calle, bien sea para pasar o aparcar; esto genera una barrera importante entre el centro de Hernani y los accesos al parque y al apeadero.
- Se ha propuesto recuperar la calle como lugar de encuentro y referencia de actividades sociales de Hernani: generar un vial donde coches y ciudadanía convivan en equilibrio y aprovechar su orientación y vistas inmejorables como lugares de encuentro para la vida



5

## Osinagatik Porturako eta Karabelerako bidea

- Egun ez dago oinezkoentzat bide egokirik, eta argiztapena kotxeentzako diseinatua dago.
- Beraz, oinezkoentzat eta bizikletan ibiltzeko bide seguru bat sortzea dugu helburutzat, kotxeetatik babestua eta argiztapen egokiarekin.

- Sólo hay una carretera para coches, el paso o paseo a pie o en bici resulta peligroso y poco apetecible de noche. Las farolas son altas, diseñadas para facilitar la visibilidad al conducir.
- Se propone generar un paso peatonal anejo al actual rodado, que sea seguro y este iluminado adecuadamente para el paso a pie o en bici.



6

## Ereñotzu auzoa

- Auzoak ez du herriarekin lotura egokirik.  Ezinezkoa da herrira oinez joatea eta garraio publikoa oso eskasa da. Ondorioz kotxearen menpe daude, eta jende ugari baztertuta geratzen da.
- Autobus publikoaren zerbitzua hobetzea eta oinezkoentzat zein bizikletetarako bide egokiak sortzea proposatzen da. Herriarekin lotuko duen bidegorriaren proiektua martxan da. Auzoak ekipamendu propioak behar ditu.

- Barrio aislado y con comunicación escasa con el pueblo. Los autobuses públicos no ofrecen un servicio regular, de manera que numerosos colectivos sin acceso a coche tiene problemas de autonomía.
- Se propone reforzar el servicio público de autobuses. Ya está en marcha el proyecto para unir Ereñotzu y el centro de Hernani mediante un camino de uso peatonal. El barrio reclama equipamientos propios.

**Epe motzean** A corto plazo

**Epe luzeagoan** A medio plazo

Puntu hauek konpontzeko asmo sendoa azaldu du Udalak baina Renferekin adostu behar direnez denbora gehiago beharko da.

El ayuntamiento se compromete a trabajar estos puntos, pero la inevitable negociación con Renfe dificulta o retrasa la solución.



7 8 9 10


Berdintasun Arloa: irantzu-j@hernani.net

T. 943 33 70 17

http://hiridebekatua-hernani-nireblog.com (bloga)

http://www.tagzania.com/user/jendetze_lanak (online mapa)

Hernaniko Udala

berdintasun kontseilua


**Hernaniko "Hiri Debekatuaren Mapa – Jendetze lanak" Hernaniko Udaleko Berdintasun Sailaren eta Berdintasun Kontseiluaren ekimena da. Herriko errealitatea eta espazio publikoa aztertu ditugu 300 bat herritarrek parte hartu duten tailerretan.**

Kale, plaza eta parkeetako erabileraren inguruko datuak eta bertan izaten ditugun bizipenenen ingurukoak jaso ditugu. Bereziki emakumezkoen ikuspuntutik baina baita beste hainbat herritar talderenak ere: edadetuak, haurrak, mendekotasuna dutenak, zaintzaileak, gazteak, mugikortasun edo zailtasun sentsorialak dituztenak. Herria guztien begiekin begiratzen aritu gara.
Genero kontuei dagokionez, bi lan ardatz izan ditugu:

- Herriko ekipamenduaren eta mugikortasunaren azterketa; emakumeak dira zaintza lan gehienak egiten dituztenak eta, ondorioz, beraiek dira herriko ekipamenduak gehien erabiltzen dituztenak. Herri barruan oinez ibiltzen direnak dira eta sarritan gainkarga eraman behar izaten dute: erosketetako pisua, gurpildun aulkia bultzatu e.a. Helburua: zaintza lanen banaketa egokiagoak ematen duen aberastasuna eta onurak azpimarratzea. Zaintza horiek aurrera eramateko denontzako erraztasuna eta zerbitzuak aldarrikatu nahi ditugu, eta noski, pertsona orok espazio publikoa erabiltzeko aukera guztiak izatea.

- Segurtasuna. Sistema patriarkalaren eraginez emakumeek barneratuta dute kale-erasoei beldurra. Ondorioz, emakumeak, gauetan batez ere,  ez dira lasaitasun osoz ibiltzen.

Hala ere, eraso gehienak inguruan izaten dituzte, etxean nahiz lantokian. Egoera hori kanporatzea garrantzitsua da eta kaleetan zein plazetan seguru ibiltzeko sentsazioa areagotu behar dugu, denok leku guztietara joateko dugun eskubidea bermatzeko. Leku irekiak eta dinamikoak nahi ditugu, herritarren artean harreman solidarioak errazten dituztenak. Kaleetako ikusgarritasun eta argitasun handiagoa eta seinalizazioa dira horretan laguntzen duten elementuak.

Herritarren pertzepzioa jaso nahi izan dugu, herriko puntu ahulak aurkitu eta, bereziki, emakumeentzat inguru eroso, atsegin eta ziurragoa lortzeko beharrezkoak diren hobekuntzak aldarrikatu. Azken finean, guztiontzat Hernani hobea nahi dugu.

**El Mapa de la ciudad prohibida de Hernani "Jendetze lanak" es un proyecto del  Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Hernani y el Consejo de Igualdad. Se ha analizado la realidad urbana y el espacio público, en unos talleres en los que han tomado parte unas 300 personas.**

Se han recogido datos sobre el uso de calles,  plazas y parques; y sobre las vivencias que tenemos en ellas. Sobre todo se ha tenido en cuenta el punto de vista de las mujeres, pero también el de otros colectivos como personas mayores, infancia, personas dependientes, personas que cuidan, jóvenes y aquellas con dificultades sensoriales o de movilidad. Hemos intentado mirar y ver el pueblo desde los ojos de todas ellas. En lo relativo a las cuestiones de género hemos trazado dos ejes:

- El análisis sobre los equipamientos urbanos y la movilidad: las mujeres, al realizar el mayor número de tareas de cuidado, utilizan en mayor grado los equipamientos de servicio. Son las que realizan mayor número de desplazamientos a pie dentro del municipio, muchas veces con la dificultad añadida de acarrear la compra, empujar una silla con ruedas etc. Objetivo: visualizar la necesidad del reparto más equitativo de las tareas. Queremos reivindicar facilidades y servicios para los trabajos de cuidado y, por supuesto, un acceso igualitario al espacio público.

- Seguridad: el sistema patriarcal provoca que las mujeres interioricen el miedo a agresiones en la calle, y por tanto que no se muevan con libertad, sobre todo de noche.

Sin embargo, la mayoría de las agresiones se dan en su entorno más cercano, como el hogar o el trabajo. Es importante visualizar esta realidad y también trabajar para que las calles y plazas sean lugares seguros donde se den relaciones solidarias entre la ciudadanía, para garantizar así el acceso universal al espacio público y la autonomía de todos los colectivos. Espacios abiertos y dinámicos, una mejor visibilidad y luminosidad en las calles, o una buena señalética que facilite la orientación son elementos que posibilitan esta tarea.

Hemos querido recoger la percepción de la ciudadanía, identificar dónde están los puntos sensibles de Hernani y en especial, reivindicar las mejoras necesarias para lograr un entorno cómodo, agradable y seguro para las mujeres. En definitiva, queremos un Hernani mejor para todas las personas.